

# Bigarren Errepublikako Gasteiz

# La Vitoria de la II República


*Proiektatu eta Editatu:* / Proyecta y Edita:
Ateneo Republicano de Álava
–ERAIKI–
Arabako Errepublikar Ateneoa

*Textuak* / Textos:
Antonio Rivera
Josemaría del Palacio
Aniceto Rubio

*Marrazkiak eta maketazioa:* / Ilustraciones y maquetación:
Gorka Otsoa de Alda y Angulo

Imprimatu / Imprime: Gráficas IRUDI, S.L.

Elkarlanean aritzen dira / Colaboran:
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
Instituto de Historia Social
Gizarte Historiarako Institutua
Valentín de Foronda




**Martínez de Aragón**darren familiak erakusten du frankismoak bazterrera utzi zuela Gasteizko eta Arabako klase agintarien abizen baten bertako presentzia, izatea eta oroitzea, errepublikanismoarekin identifikatuak izateagatik. Era berean, erakusten du ideario hori zeharkakoa izan zela, sektore popular eta klase ertainen artean kokatu zelako, baina baita elite sozial, politiko eta ekonomikoan ere. Militarrek gerraren hasieran **Florida pasealekuko 3.** zenbakiko beren etxea konfiskatu zuten.

La familia de los **Martínez de Aragón** constituye una muestra de la brutalidad con que el franquismo eliminó de la presencia en el lugar e, incluso, de la propia existencia y memoria a un apellido perteneciente a las clases dirigentes en Vitoria y Álava, identificadas con el republicanismo. También muestra cómo este ideario fue transversal, instalándose entre sectores populares, clases medias y también en la élite social, política y económica. Su casa del **Paseo de la Florida 3** fue incautada por los militares comenzada la guerra.




***HERMANDAD ALAVESA*** *Bigarren Errepublikaren garaian Arabako eskuin espainolisten erakundea izan zen. José Luis Oriol buru zuela, orduko erakundetik indartsuena zen, gehiengo karlistakoa, baina ez bakarrik, eta Heraldo Alavés berezko egunkaria zuen, 1932ko amaieratik* ***Pensamiento Alavés****-ek ordezkatu zuena.* ***Dato kaleko 41. eta 47.*** *zenbakien artean zuten egoitza eta inprimategia.*



**HERMANDAD ALAVESA** fue la organización de las derechas españolistas alavesas durante la Segunda República. Encabezada por José Luis Oriol, era la organización más fuerte de entonces, de mayoría carlista, pero no solo, y contaba con un diario propio, *Heraldo Alavés*, que desde finales de 1932 fue sustituido por ***Pensamiento Alavés***. Tenían sede e imprenta entre los números **41 y 47 de Dato.**

***Ignacio Hidalgo de Cisneros y López-Montenegro*** *Arabako militar nabarmena izan zen, gerra garaian Errepublikaren Hegazkintza gidatu zuena.* ***Dato kaleko 16.*** *zenbakian (orduan Geltokiko kalea) jaioa zen aristokrazia karlistako familia batean. Aitak bezala hartu zuen Armadaren bidea, baina 1930ean Alfontso XIII.aren aurkako Cuatro Vientos-eko mugimendu errepublikarrean parte hartu zuen. Gatazkan PCEn afiliatu zen eta porrotaren ondoren erbestera joan zen. Bukaresten Radio España Independiente-rekin "La Pirenaica" kolaboratu zuen; han hil zen 1966an.*



**Ignacio Hidalgo de Cisneros y López-Montenegro** fue un destacado militar alavés que durante la guerra comandó la Aviación republicana. Había nacido en la calle **Dato 16** (entonces Estación) en una familia de la aristocracia carlista. Tomó la vía del Ejército como su padre, pero en 1930 participó en el movimiento republicano de Cuatro Vientos contra Alfonso XIII. En la contienda se afilió al PCE y tras la derrota marchó al exilio. En Bucarest colaboró con Radio España Independiente, *"La Pirenaica"*, donde falleció en 1966.

***Eusko Alderdi Jeltzalea*** *1930eko hamarkadako euskal sistema politikoaren "hirugarren hanka" izan zen, eskuin espainolistaren eta ezker errepublikanoaren indarrekin batera. Araban XX. mendearen hasieratik antolatu zen eta 1920tik aurrera ospea lortu zuen, erregearen berrezarkuntzaren amaieran. Errepublikan hirugarren indar politikoa izanik, 1933an diputatu akta lortu zuen Francisco Javier Landaburu agintariarentzat. Orduko* ***Errepublika Plazako 27.*** *zenbakian zuen egoitza.*



**El Partido Nacionalista Vasco** fue la "tercera pata" del sistema político vasco de los años treinta, junto a las fuerzas de la derecha españolista y las de la izquierda republicana. En Álava se organizó desde principios del siglo XX y alcanzó notoriedad a partir de 1920, al final de la restauración monárquica. Tercera fuerza política en la República, consiguió acta de diputado en 1933 para su dirigente Francisco Javier Landáburu. Tenía su sede en el **número 27** de la entonces **Plaza de la República.**

***Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioa*** *1930ean inauguratu zen, orduan hiriaren kanpoaldean,* ***Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalearen amaieran****, Ajuriako lantegitik haratago. Lan ikusgarria izan zen, Pedro de Asua arkitektoaren eskutik, Euskal Elizbarrutiak hiru euskal probintziak hartu eta erlijiotasuna oso handia zen garaian. Seiehun apaizgaik baino gehiagok ikasten zuten ikastetxe berri horretan, eta hirian zeuden bi apaizgaitegi ordezkatu zituen: zaharra eta Agirrekoa. Erlijioaren eta Elizaren eragina oso nabarmena izan zen garai hartan.*



El **Seminario Diocesano de Vitoria** se inauguró en 1930 en las entonces afueras de la ciudad, al final de la calle **Beato Tomás de Zumárraga**, más allá de la fábrica de Ajuria. Fue una obra impresionante a cargo del arquitecto Pedro de Asúa, en un momento en el que la Diócesis Vascongada acogía a las tres provincias vascas y donde la religiosidad era muy alta. Más de seiscientos seminaristas estudiaban en este nuevo centro, que sustituyó a los dos seminarios preexistentes en la ciudad: el viejo y el de Aguirre. La influencia de la religión y de la Iglesia fue muy destacada en ese tiempo.

***Maria Maeztu Whitney*** *1.881ean* ***Dato kaleko 37****an jaio zen. Intelektuala, pedagogoa, unibertsitateko irakaslea, feminista eta sufragista. Andereñoen Egoitza (1915-1936) antolatu eta zuzendu zuen, Ikasketak Hedatzeko Batzordeak sortua. Institutuko Prestakuntza Atala zuzendu zuen, Emakumezkoen Unibertsitate Gazteriaren buru izan zen, Espainiako Unibertsitate Emakumeen Federazioko lehen presidentea izan zen (1921) eta Lyceum Club Femenino (1926) sortu zuen. Espainiako Gerra hasi zenean Argentinara erbesteratu zen, eta han hil zen 1.948an.*



**María de Maeztu y Whitney** nació en el **37 de la calle Dato**, en 1881. Intelectual, pedagoga, profesora universitaria, feminista y sufragista. Organizó y dirigió la Residencia de Señoritas (1915-1936), creada por la Junta de Ampliación de Estudios. Dirigió la Sección Preparatoria del Instituto-Escuela, encabezó la Juventud Universitaria Femenina, fue la primera presidenta de la Federación Española de Mujeres Universitarias (1921) y cofundadora del Lyceum Club Femenino (1926). Comenzada la Guerra de España se exilió a Argentina, donde murió en 1948.

**José Luis Oriol Urigüen**, *Arabako Ermandadean bateratu ondoren, 1930eko hamarkadako eskuin lokaleko politikaririk garrantzitsuena izan zen. Izan ere, Juntako kide eta Komunio Tradizionalistako diputatu izan zen (1931-1936).* Pensamiento Alavés *egunkariaren jabea izanik, protagonista nabarmena izan zen 1936ko estatu-kolpearen prestaketa logistiko eta politikoan. Gerraren ondoren, politika aktibotik aldendu zen. Arkitektoa zela, sektore elektrikoko enpresaburu garrantzitsua izan zen, eta, gero, baita trenbide-eraikuntza modernoarena ere.*



**José Luis Oriol Urigüen** fue el político más importante de la derecha local durante los años treinta, tras unificarse en Hermandad Alavesa. Así, fue miembro de la Junta y diputado (1931-1936) de Comunión Tradicionalista. Propietario del diario *Pensamiento Alavés*, fue protagonista destacado en la preparación logística y política del golpe de Estado de 1936. Tras la guerra, se apartó de la política activa. De formación arquitecto, fue un importante empresario del sector eléctrico y, luego de la moderna construcción ferroviaria.



1

*__Ángel García Hernández__ 1930ean Jakan matxinatutako militarretako bat izan zen, Errepublikaren aldarrikapena eragin nahi zuen mugimenduan. Gasteizen jaio zen, __Errioxa kaleko 9__. zenbakian. Fermin Galan kapitainarekin batera fusilatu egin zuten eta Errepublikako heroi bihurtu zen, orduan kaleak bere izena jaso zuenean.*

**Ángel García Hernández** fue uno de los militares sublevados en Jaca, en 1930, en un movimiento que pretendía dar lugar a la proclamación republicana. Había nacido en Vitoria, en la calle **Rioja 9**. Junto con el también capitán Fermín Galán, fue fusilado por ello y se convirtió posteriormente en un héroe de la República, al punto de que la calle recibió entonces su nombre.



2

*__Teodoro Olarte Aizpuru__ Arabako Gestora Probintzialeko lehendakaria izan zen Bigarren Errepublikako urte gehienetan. Kargura iritsi zenean, Olarte zen Arabako errepublikanismoaren historikoa eta okin-industria eta Gasteizko Okindegiko kudeatzaile ezaguna. Gerra zibila hasi eta gutxira, Alfonso Sanz ikaragarriaren ateratzeetako batean hil zuten, Sanz garai hartan krimen askoren erantzulea baitzen. Orduan, Olarte __Foruak kaleko 25__ean bizi zen.*

**Teodoro Olarte Aizpuru** fue presidente de la Gestora Provincial de Álava durante la mayor parte de los años de la Segunda República. Cuando llegó al cargo era ya un histórico del republicanismo alavés y muy conocido como industrial panadero y gerente de la Panificadora Vitoriana. Fue asesinado a poco de empezar la guerra civil en una de las sacas del temible Alfonso Sanz, responsable de muchos crímenes en ese tiempo. Entonces residía en su piso de **Fueros 25.**

*__Álava Republicana__ izan zen tokiko errepublikanismoaren kazetaritza-eleduna, lehenik Arabako Batasun Errepublikanoaren organo gisa -egia esan, Arabako Alderdi Errepublikanoaren organo gisa-, eta, gero, Ezker Errepublikanoarena, 1934tik aurrera erakunde gehienak bildu zituena. __Foruen kaleko 25__. zenbakiko lehen solairuan zuen lokala, Zentro Errepublikanoaren egoitzan, baina ez zen Arabako errepublikanoek adierazteko kazetari-bitarteko bakarra izan, ez alderdikoa, ez orokorra.*

3



**Álava Republicana** fue el portavoz periodístico del republicanismo local, primero como órgano de la Unión Republicana Alavesa –en realidad, del Partido Republicano Alavés- y luego del partido Izquierda Republicana, que aglutinó a la mayoría de entidades de ese signo desde 1934. Tenía su local en el primer piso de la **calle Fueros 25**, sede del Centro Republicano, y no fue el único medio periodístico, tanto de partido como generalista, a través del que se expresaron los republicanos alaveses.

*1897ko ekainean, UGTri lotutako Lanbide Anitzeko Elkartea sortu zen Gasteizen. Ondoren, sortu ziren ere Bastidan (nekazaritzakoa) eta Araian (metalurgiakoa), besteak beste. Alderdi Sozialistaren lehen albisteak 1899ko apirilekoak dira. Hemen ez zen masa-partida bat izan, baina bai nabarmena errepublikanismoaren barruan. Lehenbizi egoitzak hiriaren goialdean izan zituzten, eta gero __Herriko Etxe__ gisa, __Prado kaleko 5__ean.*

*Ondoko eraikinean, 1932ra arte __Gobernu Zibila__ egon zen, __Cadena eta Eletako__ txaletera eraman arte, egun Gotzaindegiarena dena.*

4




En junio de 1897 se constituyó en Vitoria una Sociedad de Oficios Varios afecta a la UGT. Le siguieron otras en localidades como Labastida (agrícola) o Araya (metalurgia). De abril de 1899 son las primeras noticias del Partido Socialista. No fue un partido de masas aquí, pero sí notable dentro del republicanismo. Primero tuvieron sedes en la parte alta de la ciudad y luego como **Casa del Pueblo**, en **Prado 5**. En el edificio contiguo estuvo hasta 1932 el **Gobierno Civil**, hasta su traslado al chalet de **Cadena y Eleta**, ahora del Obispado.

*__Valentín García Presa__, Laguardiakoa, CNTko sindikalista nabarmena izan zen. __Zapateria kaleko 14__an bizi izan zen. Ajuriaren La Metalúrgican lan egin zuen, eta bere sindikatua ordezkatu zuen 1931ko Kongresu Konfederalean nahiz beste bilera nazional batzuetan ere. Kolpe militarraren ondoren ihes egin ahal izan zuen, Iparraldeko Armadan Komisario Politiko bihurtzeko. Kantabriara eta Asturiasera erretiratzen joan ondoren, harrapatu, auzipetu, heriotza-zigorra ezarri zioten; eta 1938ko abuztuan Derion (Bizkaia) exekutatu zuten. Gasteizen eta Araban CNT indartsu baten erreferente izan zen urte horietan.*

5

**Valentín García Presa**, natural de Laguardia, fue un destacado sindicalista de la CNT, que vivió en **Zapatería 14.** Trabajó en La Metalúrgica de Ajuria y representó a su sindicato en el Congreso Confederal de 1931 y en otras reuniones nacionales.



Tras el golpe militar pudo escapar para hacerse Comisario Político en el Ejército del Norte. Tras ir retirándose en Cantabria y Asturias, fue capturado, encausado, condenado a muerte y ejecutado en Derio (Vizcaya), en agosto de 1938. Fue referente de una CNT fuerte en Vitoria y Álava en esos años.






6

*__Teodoro González de Zárate__ Gasteizko alkate errepublikarra, 1882an jaio zen, __Herrería kaleko 72__an. Izotzeko eta gaseosako lantegi baten industrialari txikia zen. Hainbat aldiz zinegotzi hautatu zuten; 1914an jarduneko alkate ere izan zen, beti errepublikar gisa. Errepublika iritsi zenean, Gabriel Martínez de Aragónentzat izan behar zen postua berak bete zuen, baina hilabete askoan eutsi zion lizentziari, eta Tomás Alfaro Fournierrek ordezkatu zuen. 1937ko martxoaren 31n Azazetan hil zuten, kolpisten kontrako erakundeetako beste 15 lagunekin batera.*

El alcalde republicano de Vitoria, T**eodoro González de Zárate**, nació en 1882, en **Herrería 72.** Era un pequeño industrial que regentaba una fábrica de hielo y gaseosas. Fue elegido concejal varias veces; incluso fue alcalde en funciones en 1914, siempre como republicano. Llegada la República, ocupó el puesto previsto para Gabriel Martínez de Aragón, aunque mantuvo muchos meses de licencia, sustituido por Tomás Alfaro Fournier. El 31 de marzo de 1937 fue asesinado en Azáceta, junto con otras quince personas de entidades contrarias a los golpistas.

*__Samaniego Eskola Taldea__ errepublikarrek hezkuntza duintzeko eta zabaltzeko egindako ahaleginaren erakusle da; ahalegina izan zen ikastetxe berriak eraikiz eta ondo prestatutako maisuz hornituz. 1935ean inauguratu zen __Estenaga Monsinorea__ren kalean (orduan, Frantzia kalea), Felix Mª de Samaniego XVIII. mendeko alegialari eta ilustratu errioxarraren omenez. Gerran zehar odol-ospitale bezala jardun zuen. Gasteizko ikastetxe publiko zaharrenetako bat da, eta egun bere ikasleen jatorri multikulturala du ezaugarri.*

7



**El Grupo Escolar Samaniego** es un exponente del esfuerzo republicano por dignificar y extender la educación, construyendo nuevos centros y dotándolos de maestros y maestras bien formados. Se inauguró en 1935 en la calle **Monseñor Estenaga** (entonces Francia), en honor a Félix Mª de Samaniego, fabulista e ilustrado riojano del siglo XVIII. Durante la guerra civil funcionó como hospital de sangre. Es uno de los colegios públicos más antiguos de Vitoria y se caracteriza hoy por la procedencia multicultural de su alumnado.